



I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- CLUB ATLÉTICO DE SAN SEBASTIÁN irabazi asmorik gabeko elkartea da, iraupen mugagabea duena, berezko nortasun juridikoaz eta bere helburuak bete zezakeen jarduteko gaitasunaz hornitua.

- Modalitate nagusia: Atletismoa
- Beste kirol modalitateak: Saskibaloia, kirol egokitua, neguko kirolak, hockeya, igeriketa, padela, euskal pilota, errugbia, beisbola eta softballa, tenisa, mahai tenisa, arku-tiroa, triatloia, bela eta boleibola.

Helburu hau bete zezakeen elkartek bere instalakuntza propioak eta baita besterenak ere, kudeatu eta erabili ahal izango ditu.

Klubak ahalmen-urritasuna duten pertsonen kirola sustatuko du, unean-unean dagoen eskakizunaren arabera eta eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta. Halaber sustatuko du emakumezkoen kirola, kirol-motak emakumeengana zabaltzeko lana bultzatuz.

Horrek ez du esan nahi, ordea, klubak bere kabuz edo beste entitate batzuen bitartez ezingo duenik jarduera ekonomikorik gauzatu, baldin eta klubaren helburuekin loturaren bat badute edo helburu horien zerbitzura badaude.

2. ARTIKULUA.- Kirol-klubaren eraketa, inskripzioa, aldaketa, desegitea, antolaketa eta funtzionamendua honako lege-xedapen hauen mende egongo dira: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Kirol klub eta kirol elkartei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, klubaren estatutuak eta aplikagarriak diren gainerako araudiak, eta bere organuek hartutako erabaki baliabideak. Lege-xedapen horiek jasotzen ez duten alderdiei dagokienez, elkarteen alorrean indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

3. ARTIKULUA.- Kasuan-kasuko kirol-kluba atxikitzen den kirol-federazioaren lege-xedapenak aplikatuko zaizkie kirol-klubei, afiliazio horren ondorioz bidezkoa den neurrian.

4. ARTIKULUA.- Kirol-klubak nagusiki Euskadiko Autonomia Erkidegoan jardungo du. Klubaren helbide soziala honako hau izango da: Herria: Donostia P.K. :2007; kalea: Kontxako Pasalekua ; zk.: 8 solairua; baxua. Helbidea aldatuz gero baina udalerrria ez, administrazio-organoak berak erabaki dezake aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroari jakinarazita.

II. KAPITULUA BAZKIDEAK

5. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko bazkide guztiak berdinak dira beren eskubide eta betebeharrei dagokienez. Ez da egongo, beraz, haien jatorria, sexua, arraza, erlijioa, hizkuntza, sexu-joera edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminaziorako biderik emango duen inolako xedapenik.

6. ARTIKULUA.-

Kirol klubaren helburuetan interesa duen edonor izan daiteke kirol klubeko kide 8. eta 9. artikuluetan jasotako edozein modalitatetan, baldin eta adinez nagusiak badira pertsona fisiko diren bazkideen kasuan eta dagozkien sarrera kuotak ordaintzen badituzte,

7. ARTIKULUA.- Kirol-klubean sartzeko eskaera idatziz bidali behar zaio presidenteari. Presidenteak jakitun jarriko du Zuzendaritza Bnatzordea eta aurreko artikuluan adierazitako

baldintzak betetzen diren ala ez aztertu ondoren eskaera onestea edo baztertzea erabakiko du. Erabaki horren aurka ez da errekurtsorik onartuko.

8. ARTIKULUA.- Kirol-klubak honako bazkide mota ezberdinak izango ditu

1. Ohorezko bazkideak.

Kirol-klubaren edo oro har kirolaren alde egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira.

Bazkide hauek estatutu hauen 10. artikulua 1. puntuan jasotako eskubideak izango dituzte eta honetaz gain ez dituzte kuotak ordaindu beharko.

Zuzendaritza batzordeak proposatuko ditu eta Batzar Nagusiak eman beharko die onespena
2. Ohorezko bazkideak. Kirol-klubaren alde egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisikoak izango dira.

Zuzendaritza Batzordeak proposatuko ditu eta Batzar Nagusiak eman beharko die onespena. Bazkide hauek estatutu hauen 10. artikulua 1. eta 2. puntuetan jasotako eskubideak izango dituzte eta honetaz gain ez dituzte kuotak ordaindu beharko.

3. Kirol bazkideak.

Federazio-lizentzia izanda, kirol-klubaren koloreak lehiaketetan defendatzen dituzten bazkideak izango dira.

Bazkide hauek estatutu hauen 10. artikulua 1. eta 2. puntuetan jasotako eskubideak izango dituzte eta honetaz gain ez dituzte izen emate kuotak ordaindu beharko.

4. Bazkide osoak. Aurreko hiru sailkapenetan sartzen ez diren bazkideak izango dira.

Bazkide hauek estatutu hauen 10. artikulua 1. eta 2. puntuetan jasotako eskubideak izango dituzte.

9. ARTIKULUA.- 18 urte bete ez dituztenek abonatuak izango dira eta honela sailkatuko dira:

1. Kirol abonatuak

Federazio-lizentzia izanda, kirol-klubaren koloreak lehiaketetan defendatzen dituzten edo kirol-klubeko kirol eskoletako kide diren 18 urtez berako kideak izango dira.

Abonatu hauek ez dute izen emate kuotarik ordaindu beharko

2. Abonatu oso infantila

Kirol abonatu izateko baldintzak betetzen ez dituzten 16 urtez beherako abonatuak izango dira.

2. Abonatu oso jubenila

Kirol abonatu izateko baldintzak betetzen ez dituzten 16 eta 17 urteko abonatuak izango dira.

10. ARTIKULUA.-

1. Kirol-klubeko bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Kirol-klubaren helburu espezifikoak lortzeko bidean bere buru eta bere lagunen onerak legedian eta estatutuetan xedatutakoari jarraituz, eta helburu horiek bete ditzela exijitzea.
- Kirol-kluba libreki uztea.
- Kirol-klubaren jarduerak ezagutzea
16. artikuluan jasotako dokumentazioa araudi xedapenean jasotako moduan aztertzea (162/2010 dekretuaren 51. artikulua)
- Kirol-klubaren baitan bere iritzia askatasunez adieraztea.
- Klubaren ordezkari- eta gobernu-organoetarako hautesle eta hautagaiak izatea, betiere adinez nagusiak badira eta jarduteko gaitasun osoa badute.
- Haien aurka diziplina-neurriak ezarri baino lehen entzunak izatea, bai eta neurri horiek funtsatu duten gertaeren gaineko informazioa jasotzea ere; gainera, isunik badagokio, horri buruzko erabakia arrazoitua izango da.
- Legearen edo estatutuen aurkakotzat jotzen dituzten kirol-klubeko organoen erabakiak aurkaratzea
- Batzar Nagusian ahots eskubidea

2. Batzar orokorrean botua emateko eskubidea 8. artikulua 2., 3. eta 4. puntuetan jasotako bazkideek izango dute.

11. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko bazkideek honako betebeharrak izango dituzte:

- Kirol-klubaren helburuak partekatzea eta horiek lortzeko bidean kolaboratzea.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Gobierno Vasco

- b) Estatutuen arabera bazkide bakoitzak ordaindu behar dituen kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Kirol-klubeko organoek hartzen dituen baliozko erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.
- d) Estatutuetatik eta araudietatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

12. ARTIKULUA.- Abonatuek bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte, 10. artikulua 1. puntuaren f), h) eta i) hizkietan jasotakoak eta 11. artikulua b) hizkian isurtzen eta bestelako ekarpenei dagokionean izan ezik.

14 urtetik aurrera abonatuak Batzar Nagusian ahots eskubidea izango dute.

13. ARTIKULUA.- Bazkide izateari utziko zaio honako kasu hauetan:

- a) Norberaren borondatez.
- b) Heriotzagaratik edo, pertsona juridikoen kasuan, desagiteagaratik.
- c) Bazkide-kuotak bi hiruhilabetez jarraian arauz ezarritako epean ez ordaintzeagaratik, betiere berandutze horren arrazoiak ez badira behar bezala justifikatzen Zuzendaritza Batzordearen iritziz.
- d) Estatutuetan edo araudietan ezarritako betebeharren ez-betetze larri batengatik isuna jasotzeagaratik, edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako baliozko erabakien ez-betetze larri batengatik.
- e) Elkarrearen aurkako ekintzengatik
- f) Behin behineko izen uzterako adostutako epea gaindituta izen ematea ez eskatzeagaratik.

14. ARTIKULUA.- Behin behineko izen uztea

1. Bazkideek behin behineko izen uztea eskatu ahal izango dute, epea urtebete baino gehiago eta hiru urte baino gutxiago izango delarik.
2. Eskaera Zuzendaritza Batzordeari idatziz luzatuko zaio eta honek erabakiko du onesten edo ukapena eta kuoten ordainketaren salbuespena.
3. Behin behineko izen uztea eskatu duten bazkideek, beriz hartzea emandako epearen barnean eskatuko beharko dute eta une horretatik aurrera dagozkien kuotak ordaindu beharko dituzte.

III. KAPITULUA DOKUMENTUEN ARAUBIDEA

15. ARTIKULUA.- Kirol-klubak honako liburu hauek, gutxienez, edukiko dituzte antolatuta eta eguneratuta bai paperean edo baita informatikoki ere:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Kide anitzeko organoen akta-liburuak.
- c) Kontabilitate-liburuak.
- d) Hala badagokio, zor-tituluen edo ondarezko zati alikuotaren erregistro-liburuak.



Aipaturiko liburu horien kudeaketa-lanak ez du kentzen beste xedapen orokor batzuen ondorioz egin beharreko dokumentuen gaineko betebeharrak egin behar ez direnik.

Liburu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan legeztatuko dira, bertako araudi erregulatuaren arabera.

16. ARTIKULUA.- Bazkideen Erregistro Liburuan haien izen-abizenak eta helbidea jaso beharko dira. Gainera, alfa eta baja egunak ere idatzi beharko dira.

17. ARTIKULUA.- Akta-liburuetan Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak eginiko bilerak jasoko dira: eguna, parte hartzaileak, aztergaiak eta hartutako erabakiak. Kirol-klubaren presidentek eta idazkariak sinatu beharko dituzte aktok.

18. ARTIKULUA.- Kontabilitate-liburuetan kontabilitatearen alorrean indarrean dauden xedapenek eskatzen dituzten datu eta mugimenduak jaso beharko dira; hartara, klubaren

ondarearen berri zehatza emango dute, eta haren finantza-egoeraren eta emaitzaren berri zehatza ere, bai eta ondasunen inbentarioarena ere.

IV. KAPITULUA ORDEZKARITZA, GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA

19. ARTIKULUA.- Kirol Klubaren organuak

Hauek dira kirol-klubaren organoak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Zuzendaritza Batzordea:
- c) Presidentzia

I. ATALA BATZAR NAGUSIA



20. ARTIKULUA.- Osaketa

Batzar Nagusia gobernu-organu goren da, eta boto-eskubidea duten bazkide guztiek osatzen dute.

21. ARTIKULUA.- Eginkizunak

Hona zeintzuk diren Batzar Nagusiaren gutxienerako zereginak:

- a) Presidentea edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordea aukeratzea, bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketaren bidez.
- b) Kontuak eta aurrekontuak onartzea.
- c) Erregelamenduak onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Kirol-klubaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa edo desagitea onartzea.
- f) Dirua maileguan hartzea.
- g) Higiezinak besterentzea eta zergapetzea.
- h) Eskualda daitezkeen zor-titulu adierazgarriak edo ondarezko zati alikuotarena ematea.
- i) Presidentearen aurkako edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozioa onartzea.
- j) Administrazio-organoko kideen ordainsariaren baldintzak onartzea.

22. ARTIKULUA.- Batzar Nagusiaren ohiko bildurak eta bilkura bereziak.

Batzar Nagusiak ohiko bilkurak egingo ditu kontuak onartzeko eta, nahitaezkoa izanez gero, aurrekontua onartzeko; bilkura bereziak ere egingo ditu, sortzen diren bere eskumeneko gainerako gaiak aztertzeko.

23. ARTIKULUA.- Deialdia

1. Kirol-klubeko presidenteari dagokio Batzar Nagusiaren ohiko bilkurarako deia egitea. Hori ezinezkoa bada edo presidenteari deialdia epearen barruan egiteko obligazioa betetzen ez badu, Zuzendaritza Batzordeak edo edozein bazkide-taldekin egin dezake deialdia, baldin boto-eskubidea duten bazkideen %10era iristen bada.

2. Kirol-klubaren presidenteari edo boto-eskubidea duten bazkideen %10era iristen den edozein bazkide-talderi dagokio Batzar Nagusi Berezirako deialdia egitea.

3. Batzar Nagusirako deia –dela ohikoa dela berezia–, aztergaien zerrendarekin batera, kirol-klubaren webgune ofizialean –halakorik badago– eta iragarki tauletan jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie bazkideei. Iragarkia 15 eguneko aurretik jarriko da, gutxienez, salbu eta premiazko epeen kasuetan edo ezustean gertaturiko larrialdien kasuetan. Webgunerik ez badago, jakinarazpena posta arruntaren bidez edo posta elektronikoen bidez bidaliko da.

Premiazko kasuetan hartuko dira kirol klubaren instalakuntzetan, imaginean, ondarean, organuen osaketan edo klubaren jarraipenean eragin larria duten haiek.

24. ARTIKULUA.- Batzarraren baliozko eraketa eta bozketak

1. Batzar Nagusia –dela ohikoa dela berezia– baliozkotzat joko da baldin eta lehenengo deialdian kideen %50 gutxienez bertaratzen badira. Bigarren deialdian, baliozkotzat joko da edozein dela ere bertaratzen diren kideen kopurua. Bigarren deialdian, bilera ezingo da egin harik eta aurreneko deialdirik hogeita hamar minutu pasa arte.

Presidenteak izango da Batzar Nagusien ekitaldien burua edo bestela presidenteordea.

2. Botu ematea beharrezkoa den deialdiko gaietarako, botu emateko eskubidea duten bestelako botu emate sistemaren bat erabiltzea adostuko ez balu.

Erabakiak gehiengo sinplearen bidez hartuko dira, momentuko legediak eta estatuto hauek, botu emateko eskubidea duten bertaratutako bazkideen bi herenak eskatzen dituzten kasuetan izan ezik.

Aldeko eta kontrako botu kopuru berdina dagoen kasuetan, presidentearen kalitateko botuak erabakiko du.

II. ATALA ZUZENDARITZA BATZORDEA



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Gaiterria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACION

POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Dirección de Juventud y Deportes

25. ARTIKULUA.- Administrazio organua

Zuzendaritza Batzordea kirol-klubaren administrazio-organua da. Batzorde kideen kopurua bakoitia izango da, eta 21 kidekoa gehienez eta 9 kidekoa gutxienez. Honako hauek osatuko dute, gutxienez, Zuzendaritza Batzordea: presidentea, zeina kirol-klubaren presidentea bera izango baita, presidenteordea, idazkaria eta elkarteko kirol sail bakoitzeko batzordekide bat.

26. ARTIKULUA.- Eginkizunak eta eskuordekoak

1. Zuzendaritza Batzordeari kudeaketa administrazioari eta ekonomikoari buruzko eginkizunak esleituko zaizkio, eta horiek betetzeko Batzar Nagusiak emandako jarraibideak errespetatuko ditu.

2. Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua betetzeagatik ordainsariak jaso ahalko dituzte, betiere Batzar Nagusiak berriaz onartzen badu, beste aztergaietatik aparteko gai moduan, eta botu eskubidea duten bertaratutako kideen bi herenak alde agertzen badira.

27. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen deialdia

Zuzendaritza Batzordearen bilkuretarako deialdia egitea kirol-klubaren presidentearen edo, haren ordez, presidenteordearen eginkizuna izango da. Deialdia eta aztergaien zerrenda, dagokion dokumentazioarekin batera, kirol-klubaren webgune jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie Zuzendaritza Batzordeko kideei. Iragarkia bi egun aurretik jarriko da, gutxienez, salbu eta premiazko epeen kasuetan edo ezustean gertaturiko larrialdien kasuetan. Webgunerik ez badago, jakinarazpena posta arruntaren bidez edo posta elektronikoren bidez bidaliko da.

Premiazko kasuetan hartuko dira kirol klubaren instalakuntzetan, imaginean, ondarean, organuen osaketan edo klubaren jarraipenaren eragin larria duten haiek.

28. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen baliozko eraketa eta bozketak

1. Zuzendaritza Batzordeko baliozkotzat joko da baldin eta lehenengo deialdian kideen %50 gutxienez bertaratzen badira, eta bigarren deialdian kide bi gutxienez bertaratzen badira, betiere horietako bat presidentea edo presidenteordea bada.

Halaber joko da baliozkotzat baldin eta, aurretik deialdirik egin gabe ere, Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak bertaratzen badira eta aho batez hala erabakitzen badute.

2. Botu ematea beharrezkoa den deialdiko gaietarako, botu eskubidea duten bertaratutako kideek eskua altxatuaz emango dute beren botua.

Aldeko eta kontrako botu kopurua berdina dagoen kasuetan, presidentearen kalitateko botuak erabakiko du.

29. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordeko burua

Kirol-klubaren presidentea edo, haren orde, presidenteordea izango da Zuzendaritza Batzordeko burua eta Batzordearen jarduna koordinatuko duena.

30. ARTIKULUA.- **Presidenteorde Ekonomikoa**

Presidenteorde Ekonomikoa izango da atal ekonomikoaren arduraduna. Presidenteorde bakarria dagoenean hau izango da ardura hau izango duena.

31. ARTIKULUA.- **Idazkaria**

Idazkariak sarrera-eskaerak jaso eta bideratuko ditu, kirol-klubaren bileren aktak egingo ditu, bazkideen fitxategiaz eta erregistro-liburuaz arduratuko da, bai eta klubaren webguneaz eta lan administratiboak zuzentzeaz ere. Langintza horietarako, langile edo kolaboratzaileen laguntza jaso ahal izango du.

32. ARTIKULUA.- **Zuzendaritza Batzordeko kargu uztea**

1. Zuzendaritza Batzordeak, edo bertako kideek banaka, honako kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Dimisioa ematen duelako.
- b) Heriotzagatik edo, pertsona juridikoen kasuan, desegiteagatik.
- c) Zentsura-mozioa onartu delako.

Kideen banakako kargu-uzteen ondorioz Zuzendaritza Batzorde osoarena gertatzeko, kideen erdiek gutxienez utzi behar dire beren kargua.

2. Zuzendaritza Batzordearen kargu-uztea gertatzen bada, Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da eta Batzar Nagusi Berezirako deia egingo da, Zuzendaritza Batzorde berria hautatzeko. Hori ezinezkoa bada, edozein bazkide-talde egin dezake deialdia, baldin boto-eskubidea duten bazkideen %10era iristen bada.

3. Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok banaka kargua uzten badute, baina hala ere kideen %50ek beren karguari eusten badiote, postu hutsak kooptazio bidez bateko dira, alegia, Zuzendaritza Batzordeko kideek askatasunez aukeratuko dituzte kargu berriak beteko dituzten pertsonak. Kooptazio bidez izendatzen diren kideak egiten den lehenengo Batzar Nagusian berretsiko dira.

III. ATALA PRESIDENTEA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Juventud y Deporte

33. ARTIKULUA.- **Organu exekutiboa eta ordezkaritza organua**

Presidentea kirol-klubaren organo exekutiboa da; klubaren legezko ordezkaria da eta administrazio-organoen burua da, eta organo horiek hartutako baliozko erabakiak exekutatzeko betebeharra dauka.

34. ARTIKULUA.- **Hautespena**

Presidentea, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak bezala, V. atalean jasotakoari jarraituz zerrenda itxien hautagaitzen bidez aukeratuko da, eta hautagaitzan lehenengo postuan dagoena horixe aukeratuko da presidente.

35. ARTIKULUA.- **Kargu uztea**

Presidenteak estatutu hauetako 32. artikuluan adierazitako arrazoietakoa batengatik utzi ahal izango du kargua. Kirol-klubeko Presidentearen postua hutsik gelditzen bada, aipaturiko arau horretan aurreikusitako muduan jokatu da.

36. ARTIKULUA.- **Agintaldia**

Presidentzia pertsona berak bi agintaldi (8 urte) jarraiez gehienez eduki ahalko du.

IV. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

37. ARTIKULUA.- Kirol-klubaren Zuzendaritza Batzordea eta presidentea lau urterik behin aukeratuko dira, bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketaren bidez, eta aukeraketan botua emateko eskubidea duten bazkide guztiek parte hartu ahaliko dute. Bozketan ez da boto-ordezkaritzarik onartuko.

Kirol-klubeko Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute kide berriak karguaz jabetzen diren arte, non eta ez den gertatzen horretarako ezintasun ageriko bat.

38. ARTIKULUA.- **Zentsura mozioa**

1. Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kide guztien edo haietako baten edo batzuen erantzukizuna exijitu ahal izango du zentsura-mozio baten bidez. Mozio horrek, aurrera egingo badu, berariaz deitutako bilkuran botu eskubidea duten bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du.

2. Zentsura-mozioa idatziz aurkeztu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari, bazkide guztien %10eko babesarekin. Batzar Nagusi Bereziak aztergai bakarria izango du: zentsura-mozioa eztabaidatzea eta haren gaineko ebazpena ematea.

3. Zuzendaritza Batzorde osoaren aurkako mozio-zentsura onartzeak bertako kide guztien kargu-uztea ekarriko du, kirol-klubaren presidentearena barne.

4. Zentsura-mozioa batzordekide baten edo batzuen aurkako bada, hura onartzeak batzordekide horien kargu-uztea soilik ekarriko du.

5. Zentsura-mozioak presidente berria izateko hautagai baten proposamena jaso dezake, edota, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde osoarena edo bertako kide batena edo batzuen. Hautatutako kargu berrien agintaldia aurreko agintaldiari bukatzeko falta zaion adinakoa izango da.

39. ARTIKULUA.- **Bateraezintasunak**

Inola ere ez dira bateragarriak izango kirol-klub baten presidente kargua eta klub hori atxikita dagoen kirol-federazioaren presidentea kargua.

Pertsona bera ezingo da izan batera kirol-modalitate bereko eta kanpoko bereko kirol-klub baten baino gehiagoren presidentea.

V. KAPITULUA HAUTESKUNDE PROZESUA



40. ARTIKULUA.- Klubaren hauteskunde-prozesuak ekainaren 22ko 143/2010 Dekretuan ezarritakoa beteko du, bai eta estatutu hauetan eta Batzar Nagusiak onartzen dituen gainerako hauteskunde-araudietan ezarritakoa ere.

41. ARTIKULUA.- Administrazio-organoetarako aurkeztzen diren hautagaitzetan emakumeen eta gizonen arteko oreka gordeko da, arrazoi objektiboak tarteko ezinezkoa denean izan ezik.

Hautagaitza bakarria baldin badago, zuzenean aukeratuko da, inolako bozketarik egin behar izan gabe.

42. ARTIKULUA.- Hautagai zerrendak zerrenda itxiak izango dira. Hautagaien kopurua Zuzendaritza Batzordeko kideen kopuru bera izango da, gehi bi ordezeko gutxienez. Kirol ataletako kideak hautagai zerrenda bitan edo gehigotan egon daitezke.

VI. KAPITULUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK, KULTURA BARRA
Gaztaria eta Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA
Departamentu de Hezikuntza eta Unibertsitateak

43. ARTIKULUA.- Kluba berezko aurrekontu eta ondare araubidearen bidez egongo da eta bere finantza agiriek Kontabilitateko Plan Orokorra eta kudeaketa araubidearen arabera egongo da, eta amaiera urte bakoitzeko abenduaren 31an izango da.

Klubak ez du fundazio-ondarerik, eta bere jarduerak aurrez eramateko honako ballabide hauek erabiliko ditu:

- Batzar Nagusiak, hala badagokio, erabakitzen dituen sarrera-kuotak edo/eta aldizkako kuotak.
- Berez dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak, bai eta jasotzen dituen diru-laguntzak, dohaintzak, utziriko ondarea eta babes-laguntzak ere.
- Estatutuetan adierazitako helburuei begira klubak egiten dituen legezko jardueretatik eratorritako beste diru-sarrerak.

Diru-sarrera guztiak, kirol-ekitaldietan eskuratutakoak barne, oso-osorik erabiliko dira helburu soziala garatzeko. Inola ere ez da onartuko etekinak bazkideen artean banatzerik, ezta haien ezkontideen edo antzeko afektibitate-harremana duten bizkideen artean ere, edo ahaideen artean. Orobat, ezingo da doako lagapenik egin irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen alde.

44. ARTIKULUA.- Ondasun higiezinak erabiltzeko, besterentzeko edo zergapetzeko, Batzar Nagusian botua emateko eskubidea duten botu eskubidea duten bertaratutakoek bi herenen gehiengoz adostutako erabakia beharko da.

45. ARTIKULUA.- Kirol-instalazioak edo horien lursailak besterentzeagatik lortutako produktua, izaera bereko ondasunak eraiki edo hobetzeko inbertitu behar da oso osorik. Lortutakoa beste helburu batzuetarako erabili nahi izan ezker, Batzar Nagusian botua emateko eskubidea duten bertaratutakoek bi herenen gehiengoz adostutako erabakia beharko da.

46. ARTIKULUA.- Kirol klubak dirua mailleguan hartu eta zorra edo ondarearen zati alikuota ordezkatzeko duten tituluak igorri ditzake, beti ere une horretan igorpen hauek arautzen dituzten betekizun eta baldintzak betetzen badira.

Titulu horiek honako ezaugarriak izango dituzte

- Elkartek emandako zorraren edo ondarearen zati alikuotaren tituluak izendatuak izango dira
- tituluak elkartek xede horretarako duen liburu batean inskribatuko dira eta liburu horretan ondoz ondoko transferentziak idatziko dira.
- titulu guztietan, balio nominala, igorpen data eta, hal denean, amortizazio interesa eta epea agertuko dira
- Edonola ere ez da baimenduko titulu liberatuak igortzea.
- Zor tituluak elkarteko kideek soilik har ditzakete eta horiek edukitzeak ez du eskubide berezirik emango, ezarritako interesa jasotzea izan ezik, indarreko legeriaren arabera.
- Zorraren edo ondarearen zati alikuotaren tituluak kasu bakoitzean Batzar Nagusiak ezarritako baldintzen arabera transferitu daitezke.
- Tituluek edonola ere ez dute emango dibidenduak edo etekinak jasotzeko eskubiderik.

47. ARTIKULUA.- Kirol-kluba deseginez gero, edo bazkideren bat egotziz gero, pertsona horrek eskubidea izango du hasieran ordaindu zuen ondare-partaidetzaren diru-kopurua edo beste diru-ekarpenak erreperatzeko, salbu eta bazkidetza-kuota moduan ordaindutako kopuruak. Horretarako, baina, ezinbesteko baldintza da ondare-murrizketaren ondorioz hirugarren pertsona edo entitateek kalterik ez jasotzea. Banantze kasuetako ondare-partaidetza berreskuratzeak ez du zertan eraginik izan klubaren irabazi asmorik gabeko izaeran. Batzar Nagusiari dagokio artikulua honetan adierazitako erabakiak abian jartzea.

ESTATUTUAK ALDATZEA

48. ARTIKULUA.- Estatutu hauek aldatzeko edo indargabetzeko, berariaz deitutako Batzar Nagusi Bereziaren erabakia beharko da, alegia, botua emateko eskubidea duten bertarotutako bazkideen bi herenen gehiengo kualifikatuaren adostasunez hartutako erabakia.

III. KAPITULUA: DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

49. ARTIKULUA.- Kluba Batzar Nagusiaren erabakiz desegingo da, estatutu hauek aldatzeko ezarri diren baldintzak eta gehiengoa errespetatuta, edo ebazpen judizialaren bidez.

50. ARTIKULUA.- Behin kirol-kluba deseginez gero, likidazio-epea hasiko da. Epe hori amaitu arte klubak bere nortasun juridikoari eutsiko dio.

Administrazio-organoko kideak likidatzaile bihurtuko dira, salbu eta Batzar Nagusiak edo, hala badagokio, desegitea ebatzi duen epaileak beste batzuk izendatzen baditu; eta 163/2010 Dekretuaren 69.3 artikuluan xedatutako funtzioak beteko dituzte.

Likidazio-fasean dagoen bitartean, kirol-klubak "likidazio-fasean" esaldia erantzi beharko dio bere izenari.

51. ARTIKULUA.- Kirol-kluba desegin eta likidatuz gero, haren ondorioz geratzen den ondare garbia Donostiako Udaletxeari emango zaio kirola sustatzeko eta praktikatzeko helburuetarako erabiliko duelarik.

IX. KAPITULUA: DIZIPLINA ARAUBIDEA

52. ARTIKULUA.-

1.- Kirol-klubeko kideek, bai bazkideek baita abonatuak ere, isuna jaso dezakete, betiere alde aurretik administrazio espedientea izapidetu eta interesatuari entzunaldia eman ondoren. Isunak izan daitezke, hasi aldi baterako eskubideak galtzetik kirol-kluba behin betiko uzterainokoak.


2. Kirol-klubak bazkideen gainean duen diziplina-ahalmena klubaren beraren araudiek eta erabakiek ezarriko dute, eta hartzen dituen erabakien kontra ezingo da errekurtsorik jarri kirol-federazioetan edo Kirol Justiziako Euskal Batzordean. Kirol-klubak diziplinaren alorrean hartzen dituen erabakiak jurisdikzio arruntean aurkaratu ahal izango dira.

3. Arau hauste eta zigorren erregimena eta diziplinazko prozedura, arautegi bidez ezarriko dira.

Donostian, 2011eko Martxoaren 31ean

IDAZKARIA

KLUBAREN ZIGILUA



PRESIDENTEA

